



**2019ko EKAINA** **EUSKO BAROMETROA**

Euskal iritzi publikoari  
buruzko aldizkako azterketa



# 2019ko EKAINA BAROMETROA

Euskal iritzi publikoari buruzko  
aldizkako azterketa



Fundación  
**IBERDROLA**



# AURKEZPENA

**EUSKOBAROMETROA** ([www.ehu.eus/euskobarometro](http://www.ehu.eus/euskobarometro)) **Francisco José Llera Ramo** irakasleak zuzendutako UPV/EHUko Politika eta Administrazio Zientzia saileko ikertaldearen izena da. Taldeak gune egonkor bat du, irakasle eta ikertzaile hauek osatutakoa: Arantxa Elizondo, Jonatan García, Patxi Juaristi, Rafael Leonisio, José M, Mata, Juantxo Mokorxa, Carmelo Moreno, Ainhoa Novo, Alberto de la Peña, Sergio Pérez eta Alfredo Retortillo. Era berean, prestakuntza jaso edo taldekide izan dira Eider Alkorta, Juan Luis Arriaga, Yosune Iraola, Eva Martínez, Pablo San Martín, Beatriz Santisteban eta Raquel Sanz.

Ikertaldearen proiektua 1995. urtean jarri zen martxan, 70eko hamarkadaz geroztik bildutako ikerketa esperientzia handia baliatuta. Helburu nagusia euskaldunen portaera politikoa eta iritzi publikoa aztertzea zen, eta horri erakundeen eta politika publikoen analisiari eta bilakaerari lotutako beste helburu batzuk batu zaizkio. Zentzu horretan, **EUSKOBAROMETRO TALDEA**ren jarduera oso emankorra izan da azken urteotan, eta horren erakusle dira bere iritzi barometroaren inkestean segidak izandako oihartzuna eta azterketa ugariak. Gaur egun, Euskobarometro Taldea kalitate zientifikoa aitortua daukan talde bat dela esan dezakegu; izan ere, Eusko Jaurlaritzak euskal unibertsitate sisteman ebaluatutako 200 ikertaldearen rankingeko lehen postuetan dago, eta 2013an lehen lekuari eutsi zion Gizarte Zientzietako ikertaldearen artean, bost urteren ondoren: [www.ehu.eus/euskobarometro](http://www.ehu.eus/euskobarometro).

- 1) Euskobarometro Taldearen lehen emaitza praktikoa datu banku oparo bat sortzea izan da, sei hilabetean behin eginiko Euskobarometroa izeneko inkestetan eskuratu-tako datuak oinarri hartuta. Hemendik gutxira, bildu eta sistematizatutako milioika datu horiek guztiak on-line kontsultatu eta tratatu ahal izango dira; oraingoz, ordea, horien aukeraketa esanguratsu bat eskain dezakegu. Datu horiek, 50.000 euskal herritarrek baino gehiagok eskuzabaltasunez emandako erantzunen bidez jasotakoak, kontsulta daitezke gure webgunearen **EUSKOBAROMETROAREN SERIE KRONOLOGIKOAK** atalean.
- 2) Euskobarometro Taldeak berak Euskobarometroaren udaberriko eta udazkeneko inkestean emaitza nagusiak ematen ditu aditzera hedabideetan eta iritzi publikoaren aurrean. Emaitzetan, datu politikoak, sozialak eta ekonomikoak ematen ditu. Datu horiek guztiak aipatutako webgunearen **EUSKOBAROMETROAREN AZKEN DATUAK** atalean kontsulta daitezke.
- 3) Euskobarometro Taldeak Euskadirako hauteskunde estimazioak aurreratu ohi ditu, hauteskunde garaian gauden aldiro. Euskal hauteskunde autonomikoen inguruan eginiko aurreikuspen horiek **EUSKOBAROMETROAREN HAUTESKUNDE ESTIMAZIOAK** atalean kontsulta daitezke, webgune berean.
- 4) Era berean, Euskobarometro Taldeak beste era bateko ikerketa eta aholkularitza lanak egiten ditu aldiaren behin, analisi empirikoen, erakunde ebaluazioaren eta politika publikoaren arloan, gehienbat. Jarduera horiek ikus daitezke ere **EUSKOBAROMETRO TALDEAREN LANEN ZERRENDA** atalean, webgune berean.

- 5) Euskobarometro taldeak eginiko lanen artean, bereziki aipatu behar dira generoari eta gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuneko politikei buruzko ikerketak. Horren harira, taldeko irakasleak eta ikertzaileak hainbat ikerketa eta aholkularitza lan egiten ari dira erakundeekin batera, genero ikuspegia jardun publikoan txertatzeko eta sexuen arteko bazterkeriarekin amaitzeko aurrerapausoak emate aldera. Jarduera horiek guztiak ere webgune berean daude ikusgai, **GENERO IKERKETAK** atalean.
- 6) Ia hasieratik, **EUSKOBAROMETROAK** arreta berezia eskainiko dio Euskal Herriko Unibertsitatearen irudi publikoaren ezagutzari, eta aitzindaria izan da arlo horretan. Hala, 1996. urteaz geroztik, **UPV/EHuren gizarte hedapenari** buruzko ikerketa argitaratu dugu urtero, eta lanaren azken edizioa gure webgunean kontsulta daiteke, errektoreak alde zurretik baimena emanda.
- 7) Euskobarometro Taldeak, 2000. urtean, Informazioaren Gizartearen Euskadiko Behatokia (IGEB) izeneko zerbitzu berria sortu zuen, informazioaren teknologia berriek euskal komunitatean duten eragina neurtzeko. Emaitzak kontsulta daitezke, halaber, webgune berean, **INFORMAZIOAREN GIZARTEAREN EUSKADIKO BEHATOKIA (IGEB)** estekan.
- 8) Europan euroa indarrean sartu, erakundeak erreformatu, eta Europar Batasuna handitu denez eta nazioarteko egoera ere aldatu denez, gai horiekiko interesa areagotu dela ondorioztatu dugu. Horren harira, **EUROPAKO INTEGRAZIOAREN ETA NAZIOARTEKO GIZARTEAREN EUSKAL BEHATOKIA (ENEB)** sortzeko beharra ikusi genuen. Behatoki horri buruzko informazioa ere orri horretan sartu genuen, 2001eko udazkeneko barometroaren ondoren.
- 9) 2001. urteaz geroztik, **EUSKOBAROMETROAK**, Bartzelonako, Granadako eta Santiagoko unibertsitate autonomoen (ICPS) eskualdeetako unibertsitate barometroekin batera, abian du **POLITIKA AUTONOMIKOAREN BEHATOKI (PAB)** berria, non beren galdetegien zati komunak partekatzen, alderatzen eta aldian behin zabaltzen diren. PABek webgune ([www.opa151.com](http://www.opa151.com)) eguneratu bat dauka, eta bertan eskualdeetako barometroetara sartzeko estekak ematen dira.
- 10) Horrez gain, azken urteetan **EUSKOBAROMETRO TALDEAK** ikerketa nazionalen lerro berri bat ireki du, beste erakunde batzuekin lankidetzan. Kalitatea Ebaluatu eta Egiatzatzeko Estatuko Agentziarekin (ANECA) izandako lankidetzaren emaitza gisa, **Espainiarrak eta Unibertsitatea** izeneko azterketa aitzindaria egin zen. **Espainiako unibertsitate sistemaren irudi publikoari buruzko lehen inkesta nazionala** aipatutako erakundeak argitaratu zuen, 2004an, eta gure webgunean kontsulta daiteke. Terrorismoaren Biktimen Fundazioarekin (TBF) eta Ikerketa Soziologikoen Zentroarekin lankidetzan egindako lanaren emaitza izan zen, halaber, **Espainiarrak eta terrorismoaren biktimak** izeneko azterlan aitzindaria. **Estatuko lehen inkesta** hura CISEk argitaratu zuen, 2004an. Terrorismoaren Biktimen Fundazioarekin lankidetzan ere, **“Percepción ciudadana sobre el terrorismo y sus víctimas”** izeneko estatu mailako **II. inkesta** argitaratu zen, 2005ean, eta izenburu bereko **III., IV. eta V. inkestak**, 2006an, 2007an eta 2008an, hurrenez hurren. Lan horiek guztiak gure webgunean kontsulta daitezke.

*UPV/EHUko Zientzia Politikoko Sailaren  
EUSKOBAROMETRO ikertaldeak, jarraian emandako  
iruzkin eta datuen bidez, 2019ko ekainean egindako  
udaberriko inkestaren emaitza nagusiak aurkezten ditu.*

*Informazio hau gure webgunean kontsultatu eta  
sakondu daiteke:*

[www.ehu.eus/euskobarometro](http://www.ehu.eus/euskobarometro)

# Aurkibidea

---

I.	FITXA TEKNIKOA	6
II.	EGOERA PERTSONALA, KEZKAK, GIZARTE ETA EKONOMIA GIROA, DEMOKRAZIAREN FUNZIONAMENDUAK ERAGINDAKO EZINEGONA ETA KONSTITUZIOARI EMANDAKO BABESA	7
III.	GOBERNU ETA POLITIKA GIROA ETA HAREN EBALUAZIOA, ALDERDIEN IBILBIDEA ETA LIDERGO POLITIKOA	19
IV.	HAUTESKUNDE PROZESUAK ETA HAIEN ONDORIOAK	29
V.	ABERTZALETASUN SENTIMENDUA ETA IDENTITATEA, ESTATU EREDUA, AUTOGOBERNUA ETA HAREN ERRE-FORMA, BABESA ESTATUTUARI, INDEPENDENTZIAREKIKO JARRERAK ETA PRESOEN ETORKIZUNA	45

---

# I. go Atala

## 2019ko EKAINEKO EUSKOBAROMETROAREN FITXA TEKNIKOAK

**Egilea:** UPV/EHUko Politika Zientzia Saileko *EUSKOBAROMETRO* taldea, **Francisco J. Lleras Ramo** irakaslea zuzendari duena. **José M. Mata** eta **Carmelo Moreno** irakasleak aritu dira taldean, **Rafael Leonisio**ren laguntza teknikoaz.

**Landa lana:** Banakako elkarrizketak, **CPS**ren landa sareak galdetegi egituratu batez etxez etxe egindakoak, 2019ko maiatzaren 28tik ekainaren 19ra.

**Unibertsoa:** Euskal Autonomia Erkidegoko 18 urteko eta hortik goragoko biztanleria.

**Laginaren tamaina:** 1.200 elkarrizketa etxez etxe egindako 400eko lagin probintzialetan.

**Laginaren diseinua:** Etapa anitzekoa eta auto-haztatua, **EUSTAT**en metodologiaren arabera, 34 udalerritako (7 Araban, 12 Bizkaian eta 15 Gipuzkoan) 60 errolda sekzioetan egin zen, eta banakoak ausaz hautatu ziren, adin eta sexu kuoten arabera.

**Laginaren errorea:** % 95eko konfiantza mailarako eta  $p = q = 0,5$  biztanleria aldakortasun gorenekotzat hartuta, laginaren errorea lagin osorako  $\pm \% 2,82$  da. Azpilagin probintzial bakoitzerako eta probabilitate baldintza berberetan, erroreak, hurrenez hurren,  $\pm \% 4,89$  dira Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako datuetarako.

**Igotzaileen kalkulua:** Metodo interaktibo baten bidez, laginak probintzia, sexu, adin eta heziketa mailaren arabera egokitu dira, **EUSTAT**ek 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldaren "Errolda sekzioen tipologietan» (1.721 sekzioetako 9 tipologia) oinarrituta egindako zozketatik abiatuta. Gainera, sekzioak hautatzeko, 2012ko Etxebizitzen Direktoria erabili da, urte bereko Biztanleria Erregistroaren eguneratzearekin batera, 2012ko sekzio banaketarekin.

# II. Atala

---

Gehiengoak positiboki baloratzen du bere egoera pertsonala 2019an, eta krisiaren aurreko gogo aldartea sendotzen ari da.

---

Ezkortasuna txikituz doa, batik bat Espainiako ekonomiarekiko. Dena dela, hobea da euskal ekonomiaren egoeraren gaineko pertzepzioaren bilakaera.

---

Zertxobait txikitu da ekonomia krisiaren eraginak sentitzen dituen gehiengo nagusia.

---

Enpleguak atzera egiten jarraitzen du lehen kezka gisa; aldiz, desberdintasunek eta ongizateak beren eragina sendotu eta bigarren lekuari eusten diote.

---

Pixkanaka normalduz doa politikaz hitz egiteko askatasun sentimendua, eta haren izaera asimetrikoa mantentzen da.

---

Lasaitzen jarraitzen du demokraziaren funtzionamendurekiko gehiengoaren haserre giroak, eta bat datoz horretan hautesleria guztiak.

---

Indartu egiten da Espainiako Konstituzioari emandako babesa, eta nabarmen gainditzen ditu 1978an izan zituen arbuioa eta lortutako babesa.

---



## GEHIENGO HANDI BATENTZAT, 2019. URTEA ONA IZATEN ARI DA MAILA PERTSONALEAN

Lau herritarretatik ia hiruk (% 71,2) uste dute 2019a ona izaten ari dela arlo pertsonalean, eta gainerakoek esperientzia negatiboren bat aipatu (% 9,4) edo jarrera eszeptikoa erakutsi dute (% 19,5). Azken hiru urteetan, egonkortu egin dira 2015. urte amaieran egiaztatu zen baikortasunaren berreskurapen argia (+18 puntu) eta ezkortasunaren atzerakada korrelatiboa (-15 puntu). Orduan esan genuen bezala, bilakaera honek erakusten digu pixkanaka berreskuratzen ari dela ekonomia krisiaren aurreko gogo aldartea (ikus 1. grafikoa).

## EZKORTASUNA TXIKITUZ DOA, BATIK BAT ESPAINIAKO EKONOMIAREKIKO. DENA DELA, HOBEA DA EUSKAL EKONOMIAREN EGOERAREN GAINEKO PERTZEPZIOAREN BILAKAERA

Aldi berean, azken sei hilekoan atzera egin du nabarmen (-15,2 puntu) pesimismoak (% 38), lehen nagusi zena Espainiako egoera ekonomikoari dagokionez: dagoneko atzerakada -49,2 puntukoa izan da azken 7 sei hilekoetan. Hala ere, optimistak ez dira maila berean igo (% 8,5), bai ordea eszeptikoak, orain nagusi direnak (% 52,2). Aldiz, orain dela zazpi sei hileko hasitako hobekuntzari jarraiki, optimistek (% 45) laugarren sei hilekoz elkarren segidan gaintitzen dituzte pesimistak (% 11,6), eta nagusi dira euskal ekonomiaren egoerari dagokionez: optimistek ia +13 puntuko igoera izan dute sei hilekoan; pesimistek, -6 puntuko atzerakada korrelatiboa. Dena dela, eszeptizismoak handia izaten jarraitzen du (% 42,7) (ikus 2. grafikoa).

## ZERTXOBAIT TXIKITU DA EKONOMIA KRISIAREN ERAGINAK SENTITZEN DITUEN GEHIENGO NAGUSIA

Oraindik lautik hiru dira gutxi gorabehera (% 77,3) krisiaren eragina sentitzen ari direla edo sentitu dutela diotenak, eta herenek gutxi gorabehera (% 33,3) diote intentsitate handiagoz jasaten ari direla edo jasan dutela, inpaktu adierazle honek atzerakada txikia izan badu ere sei hilekoan (-6 puntu, hurrenez hurren). Aldiz, ia laurdenek (% 23), gorantz doan ehunekoan, diote ez direla sentitzen ari edo ez dutela sentitu (ikus 3. grafikoa).

## ENPLEGUAK ATZERA EGITEN JARRAITZEN DU LEHEN KEZKA GISA; ALDIZ, DESBERDINTASUNEK ETA ONGIZATEAK BEREN ERAGINA SENDOTU ETA BIGARREN LEKUARI EUSTEN DIOTE

Lanak sortzen duen kezkak (% 40,8) lehen postuan jarraitzen du, sei hilekoan atzera egin badu ere berriro, -29 puntu azken zazpi sei hilekoetan. Kezken zerrendan atzera-go dago, +7 puntuko igoerarekin sei hilekoan, "gizarte desberdintasunak eta ongizatea" epigrafean bildu ditugun arazoaren multzoa (% 26); ondoren, arazo ekonomikoak oro har (% 7) eta egoera politikoa (% 6), zertxobait atzera egin dutenak. Dezente atze-

rago daude etxebizitza (% 3), immigrazioa (% 1), indarkeria, baketzea, presoak edo euskal gatazka (% 1era jaisten dira oro har). Oso atzean geratzen dira ere ingurumena eta beste gai batzuk (ikus 4. grafikoa).

## **PIXKANAKA NORMALDUZ DOA POLITIKAZ HITZ EGITEKO ASKATASUN SENTIMENDUA, ETA HAREN IZAERA ASIMETRIKOA MANTENTZEN DA**

Adierazle honek azken bost urteetan izan dituen aldaketa positiboen ondoren, nahiz eta gorabehera txiki batzuekin, azken hiru sei-hilekoetan atzerakada esanguratsu bat egiaztatu genuen (-19,1 puntu) mundu guztiarekin politikaz hitz egiteko askatasun sentimenduan, eta nagusitasuna galdu zuen, horrenbestez. Hala ere, azken sei-hilekoan, eten egin da joera hori eta igoera txiki batekin ia nagusi izatera iritsi da berriro (% 41). Era berean, bere horretan jarraitzen dute pertsona batzuekin bakarrik hitz egin dezaketela diotenen gutxiengoak (% 40,1) eta inorekin hitz egiteko gai ez direla diotenenak (% 18), eta lehengo eredu asimetrikoa mantentzen da sektore ideologiko edo identitarioen artean (ikus 5. grafikoa).

## **LASAITZEN JARRAITZEN DU DEMOKRAZIA FUNTZIONAMENDUAREKIKO GEHIENGOAREN HASERRE GIROAK, ETA BAT DATOZ HORRETAN HAUTESLERIA GUZTIAK**


Atzera egiten du bigarren sei-hilekoz (-11 puntu azken urtean) gure sistema demokratikoaren funtzionamenduak gogobetetzen ez dituen herritarren gehiengoak (% 70), eta paraleloki hazten da gogobetetzen dituenen gutxiengoa (% 29), nahiz eta Espainiako eta EBko batez bestekoaren azpitik jarraitzen duen. Berriro ere, gogobetetzen ez dituenen artean, abertzaleak (% 75) eta ez-abertzaleak (% 64) daude, eta urrunduz doaz gai honi buruzko beren iritzietan. Demokrazia sistemarekiko haserre giroa ia hautesleria guztietara zabaltzen da (VOXen hautesleriaren % 43tik EHBren % 92ra, tartean egonik PSE-EEren % 54, PNVren % 66 eta EPren % 78), salbu eta PP eta C's-en hauteslerietan: lehenengoan nagusi dira sistemak gogobetetzen dituenen multzoa (% 55); bigarrena zatituta dago (% 50ean) gogobetetzen dituenen eta gogobetetzen ez dituenen artean (ikus 6. grafikoa).

## **INDARTU EGITEN DA ESPAINIAKO KONSTITUZIOARI EMANDAKO BABESA, ETA NABARMEN GAINDITZEN DITU 1978an IZAN ZUEN EZEZKOA ETA LORTUTAKO BABESA**


Gaur berriro Konstituzioari buruzko erreferenduma egingo balitz, BAIETZAK (% 40,2) gora egingo luke (+16 puntu), hirugarren sei-hilekoz jarraian, eta aurre hartuko lioke berriro ezetzari (% 28,2). Horrek azken urteetako krisiaren aurreko egoerara garamatza eta, batez ere, 1978ko Konstituzio erreferendumean lortutako babesera. Konstituzioaren aldeko iritzia zabalduago dago ez-abertzaleen artean (% 48), baina

iritzi berekoa da ere hiru abertzaletatik bat (% 33). Bestetik, aurkako botoak duela hogeita hamar urtekoa baino handiagoa izaten jarraitzen badu ere, tartea handitzen du, batez ere ez-abertzaleen artean (% 19), nagusi izaten jarraitzen duen arren abertzaleen artean (% 38). Aurreko hauteskunde autonomikoen hautesleriei erreparatua, baiezkoaren aldekoak dira PP (% 76), PSE-EE (% 61), PNV (% 47), C's (% 41), EP (% 39) eta VOX (% 29); aldiz, ezezko botoa soilik da nagusi EHBren (% 57) boto emaileen artean, eta babes handia du ere EPn (% 33) (ikus 7. grafikoa).

1. Grafikoa: EUSKALDUNEN EGOERA PERTSONALAREN BILAKAERA, 1993-2019




## 2. Grafikoa: EUSKADIKO ETA ESPAINIAKO EGOERA EKONOMIKOAREN BALORAZIOA



### 3. Grafikoa: KRISI EKONOMIKOAREN ERAGIN PERTSONALA


Araba= %22 (+4)  
Gipuzkoa= %19 (+3)  
Bizkaia= %25 (+8)




Araba= %37 (+2)  
Gipuzkoa= %32 (-10)  
Bizkaia= %33 (-8)

#### 4. Grafikoa: EUSKALDUNEN HIRU KEZKA NAGUSIAK (ERANTZUN ANIZTASUNAREN BATURA)

FIGURA 4.10. 2018ko Urtarrila




## 5. Grafikoa: POLITIKAZ HITZ EGITEKO ASKATASUNA






## 6. Grafikoa: GOGOBETETZE MAILA GURE DEMOKRAZIAREN FUNTZIONAMENDUAREKIKO



7. Grafikoa: ESPAINIAKO KONSTITUIZIOARI EMANDAKO BOTOAREN BILAKAERA, 1978 ETA 2019 ARTEAN\*



\* Bilakaera sektorialak oraingo boladari egiteko erreferentzia aurrekoarekin alderatuta (2018ko Urria)

# III. Atala

---

Bilakaera kontrajarriak Euskadiko egoera politikoaren balorazio positiboan eta Espainiakoaren balorazio negatiboan.

---

Urkullu lehendakariak eta haren gobernuak aprobatua lortzen dute, aurreko balorazioa hobetuta.

---

PNVri EHB eta PSE-EE gehitu zaizkio herritarrek alderdiei buruz eginiko balorazioaren saldo positiboan, eta PP da bere boto emaitzen artean balorazio txikiena duena.

---

Pedro Sanchezen gobernu sozialistaren kudeaketak babesa handitzen du euskal gizartean.

---

Soilik Urkullu lehendakariak eta EBBren presidentek gainditzen dute azterketa.

---

## BILAKAERA KONTRAJARRIAK EUSKADIKO EGOERA POLITIKOAREN BALORAZIO POSITIBOAN ETA ESPAINIAKOAREN BALORAZIO NEGATIBOAN

Espainiako egoera politikoak sortutako pesimismoa oso handia da oraindik (% 58), nahiz eta -30 puntu jaitsi den duela bost seihileko ezarri zen markatik; optimistek ia ez dute gora egiten (% 6) eta eszeptikoak herenak baino zertxobait gehiago dira (% 35). Aldiz, Euskadiko egoera politikoari buruzko balorazioak hoberanzko bidea hartzen du (+15 puntu azken seihilekoan) eta optimistak (% 45) lehen aldiz nagusitzen zaizkie pesimistei (% 13) eta, batez ere, eszeptikoei (% 41); atzerakada korrelatiboa bi talde horien artean banatzen da. Abertzaleak eta ez-abertzaleak bat datoz berriro Espainiako egoera politikoari buruz nagusi den ezkortasunean (% 59 eta % 55, hurrenez hurren), baita orain ere euskal egoera politikoari buruzko baikortasunean (% 46 eta % 45, hurrenez hurren) (ikus 8. grafikoa).

## URKULLU LEHENDAKARIAK ETA HAREN GOBERNUAK APROBATUA LORTZEN DUTE, AURREKO BALORAZIOA HOBETUTA

Urkulluk eta haren gobernuak azterketa gainditzea lortu dute berriro (6,1), 8 hamarren igota azken seihilekoaren balorazioan, segida emanez horrela aurreko bilakaera positiboari. Batez besteko hori gainditu egiten dute PNV (7), C's (6,7), PSE-EE (6,5) eta PPren (6,5) boto emaleen notek; EPren nota (5,7) batez besteko horretara heltzen da ia, eta VOX (4,9) eta EHBren notak (4,8) nahikora iristen dira ia. Aipatzekoa da ere ia nota bera lortzen dutela ez-abertzaleen (5,9) eta abertzaleen (6,3) artean. Gainera, gehiago dira berriz jaurlaritzaren lana ontzat hartzen duten herritarrak (% 86) txartzat hartzen dutenak baino (% 12), aurrerakada (+12 puntu) eta atzerakada (-11 puntu) esanguratsuekin seihilekoan, hurrenez hurren (ikus 9. grafikoa).

## PNVri EHB ETA PSE-EE GEHITU ZAIZKIO HERRITARREK ALDERDIEI BURUZ EGINIKO BALORAZIOAREN SALDO POSITIBOAN, ETA PP DA BERE BOTO EMAILEEN ARTEAN BALORAZIO TXIKIENA DUENA

Euskal alderdiek azken hilabeteetan izan duten ibilbide politikoa baloratzeko eskatu diegu elkarrizketatuei, eta PNV da berriro txapeldun, lau aldiz biderkatuta saldo positiboa (+50 puntu) iritzi positiboan (% 61 eta +25 puntuko igoera seihilekoan) eta negatiboan (% 20 eta -11 puntuko jaitsiera) artean. Lehen aldiz, EHBk eta PSE-EEK saldo positiboa izan dute. EHBk +3 puntuko saldoa lortu du iritzi positiboan (% 30) eta negatiboan (% 27) artean; PSE-EEK, +1 puntuko (+% 26 eta -% 25, hurrenez hurren), gorabehera esanguratsuekin ebaluazioetan. Gainerako alderdien saldoa negatiboa da: EPren gutxieneko -23 puntuetatik (+% 16 eta -% 39), PPren gehieneko -73 puntuetara (+% 2 eta -% 75), tartean egonik C's-ren -59 puntuak (+% 4 eta -% 63), seihilekoan egonkortasun handia erakutsiz, eta VOXen -66 puntuak (+% 3 eta -% 69). Bestetik, alderdien balorazio positiboak honako hauek dira beren hauteslerien artean, txikienetik handienera: PP (% 38), VOX (% 43), EP (% 47), C's (% 50), PSE-EE (% 70), EHB (% 72) eta PNV (% 89) (ikus 10. grafikoa).

## PEDRO SANCHEZEN GOBERNU SOZIALISTAREN KUDEAKETAK BABESA HANDITZEN DU EUSKAL GIZARTEAN

Euskal iritzi publikoak erabateko mesfidantza zuen Mariano Raxoiren gobernuarekiko. Aldiz, orain dela sei hilabete, Pedro Sanchezen gobernu sozialistak iritzi ez hain

kritikoak sortzen zituen gure elkarrizketatuen artean. Joera bere horretan mantendu da azken sei hilekoan, eta gaur egun aldeko iritziak herenera heldu dira (% 33) eta aurkako iritziak (% 25) gainditu dituzte: aldekoak ia bikoiztu egin dira eta aurkakoak txikitu proportzio berean. Dena dela, eszeptizismoa nagusi da oraindik 10 herritarretatik ia lautan (% 38.), zentsura mozioaren ondorioz eratu zen Sanchezen gobernuaren kudeaketa epaitzeko orduan. Hala eta guztiz ere, orain, balorazio positiboa nagusi da boto emaile sozialisten artean (% 75) eta, neurri apalagoan, EPren (% 40) eta PNVren (% 35) boto emaileen artean, kritikoenak izanik VOX (% 88), PP (% 72), C's (% 68) eta, neurri askoz txikiagoan, EHB (% 38) (ikus 11. grafikoa).

## SOILIK URKULLU LEHENDAKARIAK ETA EBBren PRESIDENTEAK GAINDITZEN DUTE AZTERKETA

Buruzagi politikoen balorazioan sei hilekoan izan den hobekuntza ia orokorraren ondoren –bat eta zortzi hamarren arteko igoerak, P. Casado eta A. Alonso popularren eta P. Iglesiasen atzerakadaren salbuespen bakarraz–, aldaketa txiki batzuk izan dira aurreko sei hilekoetako hurrenkeran, bere horretan mantenduta batzuen eta besteen ezagutza maila. Hasteko, oso ezaguna den buruzagi talde bat dugu, estatu mailakoak batik bat, ezagutza mailarik handienekoa, balorazioen % 80 gainditzen dutenak (I. Urkullu, P. Sanchez, P. Iglesias, A. Otegi, A. Rivera, P. Casado eta S. Abascal), % 60 eta % 80 artean dagoen bigarren talde bat (A. Garzon, A. Alonso, I. Mendia eta A. Ortuzar) eta % 40ra iristen ez direnak (L. Martinez eta A. Rodriguez). Berriro ere, Urkullu lehendakaria lehen postuan dago eta azterketa gainditzea lortzen du (5,5eko nota, +7 hamarren igota eta % 95eko ezagutza maila); A. Ortuzarrek ere azterketa gainditzen du (5, +8 hamarren eta % 73); ondoren, P. Sanchez (4,6, +8 hamarren eta % 95), I. Mendia (4,3, +5 hamarren eta % 69), L. Martinez (4,1, +5 hamarren eta % 39), A. Otegi (4, +2 hamarren eta % 89), A. Garzon (4, +1 hamarren eta % 68), A. Rodriguez (4, +5 hamarren eta % 28) eta P. Iglesias (3,8, -2 hamarren eta % 94); zerrendaren atzean, zentro-eskuineko buruzagiak daude: A. Rivera (1,7, +1 hamarren eta % 92), A. Alonso (1,6, -3 hamarren eta % 75), P. Casado (1,4, -1 hamarren eta % 92) eta, azkenik, S. Abascal (0,8 eta % 87) (ikus 12. grafikoa).


Hala ere, S. Abascal da bere boto emaileek hobekien baloratzen duten buruzagia (7,3), eta balorazioan hurrengoak dira Urkullu lehendakaria (6,8), A. Otegi (6,7) eta A. Alonso (6,5); zerrenda ixten dute I. Mendiak eta A. Rodriguezek (5,4).

Amaitzeko, puntuazio horiek onarpen indizearekin osatzen baditugu (gutxienez aprobatu bat eman dutenen %), Urkullu lehendakaria da berriro rankingaren buru (% 68 eta +11 puntuko igoera sei hilekoan), eta Pedro Sanchezekin (% 54 eta +14) batera da aprobatu gehien lortzen dituen bakarra. Ondoren: A. Ortuzar (% 47 eta +12 puntu), A. Otegi (% 41 y +3 puntu), P. Iglesias (% 40 y -3 puntu), I. Mendia (% 35 y +10 puntu), A. Garzon (% 30 y -3 puntu), L. Martinez (% 18 y +4 puntu), A. Rodriguez (% 13 eta +2 puntu), A. Rivera (% 12 y +1 puntu), A. Alonso eta P. Casado (% 9 eta -1 puntu) eta S. Abascal (% 6) (ikus 13. grafikoa).

## 8. Grafikoa: EUSKADIKO ETA ESPAINIAKO EGOERA POLITIKOAREN BALORAZIOA


### EUSKADIKOIA

Aber. = %46 (+14)  
Ez aber. = %45 (+16)




Aber. = %13 (-3)  
Ez aber. = %13 (-9)

### ESPAINIAKOA




Aber. = %59 (-15)  
Ez aber. = %55 (-17)

### 9. Grafikoa: ORAINGOKO KOALIZIO GOBERNUAREN KUDEAKETAREN NOTA




## 10. Grafikoa: AZKEN HILABETEETAKO ALDERDI POLITIKOEN IBILBIDEAREN BALORAZIOA






## 11. Grafikoa: ESPAINIAKO GOBERNUAREN BALORAZIOA




## 12. Grafikoa: LIDER POLITIKOEN BALORAZIOA EUSKADIN

### OSO EZAGUNAK



(%) Balorazioa ematen duten elkarrizketatuen ehunekoa

### 13. Grafikoa: LIDER POLITIKOEN ONARPEN INDIZEA EUSKADIN



# IV. Atala

---

Euskal herritar gehienak pozik daude apirilaren 28ko hauteskunde orokorren emaitzekin eta ez lukete botoa aldatuko

---

Euskal iritzi publikoak uste du emaitzak oro har positiboak direla Euskadirentzat eta, neurri apalagoan, Espainiarentzat

---

la herritar denek erabakita zuten botoa nori eman hauteskunde kanpainaren aurretik eta soilik hamarretik batek dio zalantzan egon zela

---

Abstenitu ziren gehienek erabakia hartua zuten hauteskunde kanpainaren aurretik

---

Identifikazio ideologikoa eta eskaintza bakoitzaren profil bereizgarria bateratu egiten dira euskal hautesleriaren boto erabakian

---

Gero eta gehiago, alderdiak boto emaleak baino polarizatuago daude, dimentsio identitarioan ideologikoan baino gehiago

---

Alderdi bakoitzaren boto leialtasuna eta aukeren arteko aldakortasuna apirilaren 28ko hauteskundearen emaitzaren gakoak dira

---

Koalizio gobernua da euskal gizarteak lehenesten duen aukera, gehiengo absolutua izan ala ez

---

PNVren eta PSE-EEren arteko akordioa da aukerarik gustukoena udal eta foru gobernua osatzeko

---

## EUSKAL HERRITAR GEHIENAK POZIK DAUDE APIRILAREN 28KO HAUTESKUNDE OROKORREN EMAITZEKIN ETA EZ LUKETE BOTOA ALDATUKO

Duela hiru urte 2016ko hauteskunde orokorren ondoren gertatu bezala, euskal gizartearen gehiengoak (% 60) pozik dago apirilaren 28ko hauteskundearen emaitzekin; ia bi bosten (% 37), ez. Gogobetetasuna nabarmena da Bizkaian (% 62), abertzaleen artean (% 64) eta PSE-EE (% 88), PNV (% 82) eta EHBren (% 51) hauteslerietan; aldiz, emaitzak gogobete ez dituen dagokienez, nabarmentzekoak dira ez-abertzaleak (% 40), abstentzionistak (% 50) eta gainerako hautesleriak (EHBren % 48tik PPren % 79ra, tartean egonik EPren % 63 eta C's eta VOXen % 50). Hauteskunde ondoko giro hori oso bestelakoa da, berriro ere, azken hauteskunde autonomikoetatik sortutakoaren aldean (ikus 14. grafikoa).

Nolanahi ere, ohikoa denez, emaitza ikusirik, hamarretik ia bederatzik (% 86) ez lukete beren botoa edo abstentzioa aldatuko; % 10ek abstentzioaren edo boto zuria- ren alde egingo lukete; % 1 bozkatzera joango litzateke; % 1ek botoa aldatuko luke; eta, % 2k ez dakite zer egingo luketen.

## EUSKAL IRITZI PUBLIKOAK USTE DU EMAITZAK ORO HAR POSITIBOAK DIRELA EUSKADIRENTZAT ETA, NEURRI APALAGOAN, ESPAINIARENTZAT

Apirilaren 28ko hauteskundearen emaitzek Euskadiren eta Espainiaren etorkizunarentzat izango dituzten eragin positiboak edo negatiboak buruz galdetu diegu elkarrizketatuei, eta orain dela lau urtekoaren ia berdina den diagnostikoa lortu dugu. Lautik ia hiruk osatutako gehiengoak (% 71) positibotzat jotzen ditu emaitzak Euskadirentzat; aldiz, bostetik bat baino zertxobait gutxiagok (% 16) bere ezkortasuna adierazten du. Baikortasuna nagusi da abertzaleen (% 73) eta ez-abertzaleen (% 70) artean, eta, indar handiagoz edo txikiagoz, hautesleria ia guztietan ageri da (VOXen % 43ko gutxienezkotik PSE-EEren % 91ko gehienekora), popularren artean izan ezik, zatituago daudenak eta balorazio negatiborako joera handiago dutenak (% 48). Hala ere, iritziak ez dira hain optimistak (% 61) Espainiaren etorkizunarentzat izan dezaketen eraginari buruz, eta lautik bat baino apur bat gutxiagok (% 22) bere ezkortasuna adierazten du, iritziak era berdintsuan banatuta (ikus 15. grafikoa).

## IA HERRITAR DENEK ERABAKITA ZUTEN BOTOA NORI EMAN HAUTESKUNDE KANPAINAREN AURRETIK ETA SOILIK HAMARRETIK BATEK DIO ZALANTZAN EGON ZELA

Elkarrizketatuei galdetu diegu noiz erabaki zuten botoa, eta gehien-gehienek, bostetik ia lauk (% 78), erantzun dute hauteskunde kanpaina hasi aurretik; % 8k, kanpainaren lehenengo egunetan; % 2k, eztabaiden ondoren; % 8k, kanpainaren azken egunetan; eta % 4k ez diote galdetari erantzun. Datu horiek bat datoz ia guztiz ohiko emaitzekin (ikus 16. grafikoa).

Gainera, botoa eman zutenen gehiengo handi batek (% 79) argi izan zuten nori eman botoa, eta soilik hamarretik batek izan zituen zalantzak alderdien artean eta, neurri txikiagoan, alderdien eta abstentzioaren artean.

## APIRILAREN 28AN ABSTENITU ZIREN GEHIENEK ERABAKIA HARTUA ZUTEN HAUTESKUNDE KANPAINAREN AURRETIK

Dena dela, abstentzionisten artean bereizi egin behar dira sekula botoa ematen ez dutenak (% 35), kanpaina baino lehen erabaki zutenak (% 35) eta kanpainan erabaki

zutenak (% 18), aurreko hauteskundeetan gertatutakoaren antzera. Arrazoiak dira: mesfidantza (% 21), gustuko aukerarik ez izatea (% 18), inpotentzia edo botoaren baliyo/eraginari zentzurik ez ikustea (% 16), politikarekin aspertuta egotea (% 9), hase-rra (% 6), argitu gabeko zalantzak (% 5), botoa ematea eragotz dezaketen arrazioez gainera (osasuna, lana, desplazamenduak, etab.) (ikus 17. grafikoa).

## **IDENTIFIKAZIO IDEOLOGIKOA ETA ESKAINTZA BAKOITZAREN PROFIL BEREIZGARRIA BATERATU EGITEN DIRA EUSKAL HAUTESLERIAREN BOTO ERABAKIAN**

Hautesleria bakoitzaren bozkatzeko arrazoiei dagokienez, herritarrek PNV bozkatu dute, alderdiarekin identifikatzen direnez gainera (% 44), euskal interesak Madrilen ondoen defendatzen dituelako (% 41), identitatea eta autogobernua bermatzen dituelako (% 7), eskuinak irabaztea saihesteko (% 2) eta, neurri txikiagoan, hautagaiengatik (% 1). PSE-EE bozkatu dute, batez ere, alderdiarekin identifikatzen direnek eta boto emaile leialenek (% 66), eskuinaren gobernu bat saihesteko erakutsitako tinkotasunagatik (% 14) eta Euskadin bakea eta etorkizuna hobeto bermatzen dituen alderdia izateagatik (% 3). Elkarrekin Podemos bozkatu dute identifikazio ideologikoagatik (% 45), ezkerreko gobernu bat bermatzeko (% 17), aldaketa erradikalak proposatzeagatik (% 14), eskuinaren garaipena saihesteko (% 8), ustelkeriarik ez dutelako (% 5), P. Iglesiasengatik (% 3) eta erabakitze eskubidearen alde egoteagatik (% 3). EHB, ideologikoki identifikatuta daudenez gainera (% 85), bozkatu dute independentziaren alde egiteagatik (% 8), eskuinaren garaipena saihesteko (% 5) eta bere hautagaiengatik (% 3). PP, ideologikoki identifikatuta daudenez gainera (% 29), bozkatu dute kudeaketa gaitasunagatik (% 38) eta terrorismoaren eta abertzaleen aurrean erakutsitako irmotasunagatik (% 19). Amaitzeko, C's bozkatu dute bere ideologia liberalagatik (% 53), PSE-EE eta PPrekiko posizio kritikoa (% 13), Sanchezen gobernua eragozteko (% 5), A. Riveragatik (% 6) eta abertzaleei aurre egiteagatik (% 6) (ikus 18. grafikoa).

## **GERO ETA GEHIAGO, ALDERDIAK BOTO EMAILEAK BAINO POLARIZATUAGO DAUDE, DIMENTSIO IDENTITARIOAN IDEOLOGIKOAN BAINO GEHIAGO**

Elkarrizketatuei eskatu diegu beren burua eta alderdi politikoak ezker-eskuin eskala ideologikoan kokatzeko, Euskadiko hautesleriaren eta alderdien polarizazio ideologikoa zehazte aldera. Gauzak horrela, euskal hautesleriak batez beste zentro-ekerrean kokatzen du bere burua (3,9, 1etik 10erako eskalan), eta elkarrengandik urrutien dauden alderdien (PP eta EHB) boto emaileen arteko distantzia ideologikoa 4 puntukoa da (gehieneko 9 puntuei dagokienez). Horrek % 44ko herritarren polarizazio indizea ematen du, egonkortze joera batekin. Dena dela, aintzat hartzen badugu herritarrek bozkatzten dituzten alderdiak non kokatzen dituzten, distantzia (VOX eta EHB artean kasu honetan) ia halako bi da (7,2); horrek % 80ko alderdien polarizazio indizea ematen digu, eta dinamika lehiakor polarizatuago eta zentrifugo baten adierazle da. Hori horrela, VOX (+2,9), PP (+1,1), C's (+0,7), PNV (+1) eta PSE-EE (+0,2) alderdien kasuan, beren boto-emaileek beren burua baino zentrorago eta eskuinerago kokatzen dituzte. Aldiz, EP (-0,4) eta EHB (-0,6) ezkerreago kokatzen dira, eta horrek aldakortasun handiagoa eragin dezake eta, batez ere, polarizazio tentsioak, bereziki eskuinean (ikus 19. grafikoa).

Aldi berean, elkarrizketatuei eskatu diegu beren burua eta alderdi politikoak abertzaletasun-espainolismo eskala identitarioan kokatzeko. Modu horretan, Euskadiko hautesleriaren eta alderdien polarizazio identitarioa zehaztu dugu. Gauzak horrela, euskal hautesleria batez beste abertzaletasun moderatu posizio batean kokatzen da (4,2, 1etik 10erako eskalan), eta elkarrengandik urrutien dauden alderdien (VOX eta EHB) boto-emaileen arteko distantzia identitarioa 5,6 puntukoa da (gehieneko 9 puntuei dagokienez). Horrek % 62ko polarizazio indizea ematen digu, nabarmen handiagoa dimentsio ideologikoan lortutakoa baino, nahiz eta askoz moderatuagoa. Hala eta guztiz ere, aintzat hartzen badugu herritarrek bozkatzen dituzten alderdiak non kokatzen dituzten, distantzia handiagoa da berriro (7,6). Horrek % 84ko polarizazio indizea ematen digu, eta boto emaileena baino dinamika lehiakor polarizatuago eta zentrifugoago bat adierazten du. Hori horrela, VOX (+1,5), PP (+0,1), C's (+0,2), PSE-EE (+0,4) eta EP (+0,9) alderdien kasuan, beren boto-emaileek beren burua baino espainolistago ikusten dituzte. Aldiz, PNV (-0,2) eta EHB (-0,5) posizio abertzaleago baterantz lerratuta ikusten dira, eta horrek aldakortasun handiagoa eragin dezake halaber, baita polarizazio tentsioak ere (ikus 20. grafikoa).

## ALDERDI BAKOITZAREN BOTO LEIALTASUNA ETA AUKEREN ARTEKO ALDAKORTASUNA APIRILAREN 28KO HAUTESKUNDEEN EMAITZAREN GAKOAK DIRA

2016ko hauteskunde orokorren eta 2019koen arteko boto aitortuaren transferentzien matrizea aztertzeak aukera ematen digu hurbilpen bat egiteko 2016ko boto emaile bizen hauteskunde portaerara, baita 2019ko hauteskundeetan alderdi bakoitzak lortutako babesaren jatorri edo konposiziora ere. Ohartarazi behar da horrek ez digula adierazten zehatz-mehatz zer boto aldaketa egon diren. Izan ere, soilik boto emaile bizen boto aitortuaren oripena izateaz gainera (ez boto guztia), lagin errore marjinalak areagotu egiten dira lagina elektoraliki zatikatu ahala eta, batez ere, txikitu egiten dira ehunekoak (ikus 21. grafikoa).

Kontuan hartzen baditugu 2016ko boto emaileen edo abstentzionisten portaerari eta 2019ko hauteskerien jatorriari buruzko bi grafikoa, lehenik eta behin ikus dezakegu hautesleria bakoitzaren leialtasun maila, C's-ren (% 56) gutxienekotik PNV (% 90), EHB (% 88) eta PSE-EEren (% 85) gehienekora, tartean egonik PP eta EP, % 70aren azpitik.

PNVren botoak (390.000 bototik gora, 100.000 inguru irabazita), aurreko bere boto emaileengandik ez ezik (% 79), espektrorik osotik datoz, eta positiboki konpentsatzen ditu abstentziara eta beste alderdietara joandako botoak. PSE-EEren botoak (250.000 bototik gora, ia 90.000 berreskuratuta), aurreko bere boto emaileengandik ez ezik (% 75), EPTik (% 6), PNVtik (% 5), abstentziotik (% 5) eta PPTik (% 2) datoz. EPren botoak (220.000 bototik gora, 100.000 boto baino gehiago galdu ondoren), aurreko bere boto emaileengandik datoz (% 74), eta ez da gai bere saldo negatiboak konpentsatzeko, ez alderdi abertzaleekiko eta PSE-EErekiko boto trukeen bidez, ezta abstentziotik edo boto emaile berriengandik lortutako botoen bitartez ere. EHBren botoak (200.000 bototik gora, 60.000 inguru berreskuratuta 2016ko hauteskundee-tatik), aurreko bere boto emaileengandik ez ezik (% 81), EPTik (% 5), boto emaile berrietatik (% 6), abstentziotik (% 3) eta, neurri txikiagoan, saldo positiboak lortzen dituen beste aukera batzuetatik datoz. PPren ia boto denak (90.000 bototik gora, 50.000 inguru galdu ondoren) bere aurreko boto emaileengandik datoz (% 79), eta ez da gai konpentsatzeko abstentziora, C's-era, PSE-EEra, VOXera edo PNVra joandako botoak. C's-ren botoak (40.000 boto inguru) datoz bere aurreko boto emaileengandik

(% 31), abstentziotik (% 19), PSE-EEtik (% 19), boto emaile berriengandik (% 13) eta EPtik (% 6), eta botoak galtzen ditu PPren eta, batez ere, PNVren mesedetan. VOXen 30.000 botoak PSE-EEtik, abstentziotik, boto emaile berriengandik eta PPtik datoz. Bestetik, boto emaile berrien botoak honela banatzen dira: EHB (% 28), EP (% 21), PNV (% 9), abstentzioa (% 9) eta gainerako alderdiak, proportzio ia berdinetan (% 5 eta % 7 artean). Amaitzeko, abstentzioaren multzoa osatzen dute aurreko abstentzionistek (% 57) eta alderdi guztietako boto emaileek.

## **KOALIZIO GOBERNUA DA EUSKAL GIZARTEAK LEHENESTEN DUEN AUKERA, GEHIENGO ABSOLUTUA IZAN ALA EZ**

Kontuan izanik apirilaren 28ko hauteskunde orokorren ondoren gobernuua eratzeko zailtasunak eta hauteskunde autonomikoen ondoren egin bezala, berriro galdetu diegu herritarrei gobernuua osatzeko –Espainiakoa, kasu honetan– lehenesten dituzten aukerei buruz. Euskal gizartearen gehiengoa (% 58) bi alderdik edo gehiagok eraturako koalizio gobernuaren aldekoa da, eta alderdi bakarreko gobernu minoritarioa da beste aukera (% 30), geometria aldakorreko akordio puntualen bidez edo legealdiko itunen bitartez. Hautesleria guztietan da nagusi koalizio gobernuaren aukera, PPren % 52ko gutxienezetik EPren % 76ko gehienekora. Soilik PSE-EEren hauteslerian da nagusi gutxiengoan arituko den gobernuaren aukera (% 53), nahiz eta koalizio gobernuaren aldeko gutxiengo esanguratsu batekin (% 43) (ikus 22. grafikoa).

Bi hipotesiek bi alderdiren edo gehiagoren arteko akordioa behar dutenez, zer aliantza nahiago den galdetu dugu, modu ireki batean, eta emaitza oso zatikatuta dago. Dena dela, PSOEren eta UPren arteko ezkerreko akordioa gailentzen da (% 27), alderdi horien hauteslerien artean batik bat (UPren % 56 eta, neurri txikiagoan, PSOEren %43); bigarren postuan, aurrekoaren osagarritzat hartzen den aukera dago: hots, abertzaleek aurreko formularekin bat egitea (% 16), EP, EHB eta PNVren lau boto emaileetatik baten babesaz; PSOEren eta abertzaleen arteko akordioa hirugarren lekuan dago (% 13), eta PNVren hautesleen artean du bereziki babesa (% 25); PSOEren alderdi bakarreko gobernuak (% 7) ez du babesik, ezta boto emaile sozialisten artean ere; PSOEren eta C's-ren arteko aliantzak (% 6) soilik du gehiengoaren babesa A. Riveraren boto emaileen artean (% 56). Amaitzeko, iritzirik publikoaren ia herenek ez dute iritzirik edo lehenesten adierazten (% 24), edo aukera marjinalen aldekoak dira (% 7); eskuineko boto emaileak batik bat.

## **PNVREN ETA PSE-EEREN ARTEKO AKORDIOA DA AUKERARIK GUSTUKOENA UDAL ETA FORU GOBERNUAK OSATZEKO**

Aurreko atalean estatuko gobernuua osatzeko aukerei buruz galdetu badugu, orain udal eta foru gobernuetan gehiengoak eratzeko lehenesten diren aukerei buruz galdetzen dugu, eta aukeren pluraltasun handia da berriro ere azpimarratzekoa. PNVren eta PSE-EEren arteko akordioa (% 36) nagusitzen da, eta berdinketa gertatzen da bigarren postuan, PNVren eta EHBren arteko itunaren (% 20) eta ezkerreko alderdien akordioaren (% 20) artean. Lehenengo aukera nagusi da sozialisten (% 71) eta PNVren (% 56) boto emaileen artean; aldiz, ezkerreko gobernuen aukera nagusi da EPren (% 49) eta EHBren (% 46) hauteslerien artean; azkenik, abertzaleen arteko akordioak soilik du babesa EHBren (% 37) eta, neurri txikiagoan, PNVren (% 26) boto emaileen artean. Amaitzeko, iritzirik publikoaren laurdenek ez dute aukerarik adierazten edo aukera marjinalen aldekoak dira (ikus 23. grafikoa).




14. Grafikoa: HAUTESKUNDEEN EMAITZEKIKO GOGOBETASUNA ETA BALIZKO ERABAKIA EMAITZAK JAKIN BALIRA

**GOGOBETETASUNA**

PSE-EE= %88  
EAJ/PNV= %82  
EHB= %51

Aber.= %64  
Ez aber.= %55



PP= %79  
Podemos= %63  
EHB= %48

Aber.= %34  
Ez aber.= %40


# 15. Grafikoa: HAUTESKUNDEEN ERAGINA EUSKADI ETA ESPAINIARAKO

## ESPAINIA

Aber. = %22  
Ez aber. = %23

PP= %83  
EHB= %29

ED/EE 17%  
NEGATIBOAK 22%




PSE-EE= %90  
EAJ/PNV= %72  
Podemos= %57  
EHB= %56

Aber. = %63  
Ez aber. = %59

## EUSKADI

PP= %48  
EHB= %27  
Podemos= %24


ED/EE 13%  
NEGATIBOAK 16%




PSE-EE= %91  
PNV= %88  
Podemos= %64  
EHB= %60  
PP= %45

Aber. = %73  
Ez aber. = %70

16. Grafikoa: BOTOA ERABAKITZEKO UNEA ETA BOZKATZEKO MOTIBAZIOA, A28 BAINO LEHEN




17. Grafikoa: NOIZ ERABAKITZEN DEN ABSTENTZIOA ETA ABSTENITZEKO ARRAZIOIAK




# 18. Grafikoa: 2016ko HAUTESKUNDE OROKORRETAN BOZKATZEKO ARRAZIOAK


## EAJ/ PNV




## PSE-EE




## PP




## EHBildu





## Podemos




## C's






### Alderdi Politikoak




### Hautesleen Auto-kokapena




## 21. Grafikoa: BOTO TRANSFERENTZIAK 2016-2019

### 2019KO BOZKA-EMALEAK NORA JOAN DIREN



### 2019KO HAUTESLERIA NONDIK DATORREN





## 22. Grafikoa: GOBERNU EGONKOR BAT OSATZEKO LEHENTASUNAK ETA GUSTOEN ELKARKETA EDOZEIN KASUTAN


### LEHENTASUNA

GOBERNUA GUTXIENGOAN,  
BABES NAHIKOEKIN

30%


PSE-EE=%53  
EAJ/PNV=%32  
PP=%28

ED/EE




Podemos=%76  
EHB=%67  
EAJ/PNV=%56  
PP=%52  
PSE-EE=%43

### ELKARTZE GUSTOKOENA



23. Grafikoa: UDAL ETA FORU GOBERNU FORMULA LEHENETSI



# U. Atala

---

Ez-abertzaletasunaren sentimenduaren nagusitasuna mantentzen da euskal gizartearen, zatiketa egoera kroniko batean.

---

Euskal eta espainiar identitateen arteko bateragarritasunak nagusi izaten jarraitzen du, euskaltasuna argi nabarmenduz.

---

Autogobernu lehentasunek zatiturik jarraitzen dute autonomismoaren, federalismoaren eta independentismoaren artean.

---

Indartu egiten da Estatutuarekin pozik daudenen gehiengo handia, handitu daitekeen autogobernu baten nahia asetzen baitu.

---

Gernikako Estatutuaren aldeko gehiengoaren babes esplizituak markak ezartzen ditu eta gainditu egiten du 1979ko erreferendumean lortutakoa.

---

Independentzia nahiak gutxiengo baten aukera izaten jarraitzen du, ziurgabetasun etorkizun batean.

---

Balizko erreferendum batean, EZEZKOA baiezkoiari nagusituko litzaioke 17 puntuko aldeaz.

---

Euskal gizarteak, zatituta, bere jarrera gogortu du terrorismo delituak dituzten presoeri barkatzeari eta gizarteratzeari dagokienez.

---

## EZ-ABERTZALETASUNAREN SENTIMENDUAREN NAGUSITASUNA MANTENTZEN DA EUSKAL GIZARTEAN, ZATIKETA EGOERA KRONIKO BATEAN

Abertzaleen (% 46) eta ez-abertzaleen (% 50) arteko zatiketa egoera kronikoan, bi taldeen arteko aldeak hurbildu egin dira berriro (4 puntu), azken bi seihilekoetako joera aldatuz: bigarrenek -4 puntuko atzerakada izan dute seihilekoan; lehenengoek, aurrerakada korrelatiboa. Lurraldeka, abertzale sentitzen ez direnak nagusi dira Araban eta Bizkaian (% 52); aldiz, Gipuzkoan abertzaletasun sentimendua gailentzen da (% 49). Hauteslerien arabera, abertzale sentitzen ez direnei dagokienez, abstentzionisten % 63ko gutxienekoaren eta PPren boto emaileen % 100ren artean daude; aldiz, abertzaletasun sentimendua nagusi da PNVren boto emaileen (% 74) eta EHBren boto emaileen (% 79) artean, nahiz eta gurutzatze minoritario batzuekin bi norabidetan (ikus 24. grafikoa).

## EUSKAL ETA ESPAINIAR IDENTITATEEN ARTEKO BATERAGARRITASUNAK NAGUSI IZATEN JARRAITZEN DU, EGONKOR ETA EUSKALTASUNA ARGI NABARMENDUZ

Seihilekoan apur bat aurrera eginez (+4 puntu), herritar gehienek diote -hirutik bik (% 66)- bateragarriak direla euskal eta espainiar identitateak. Euskal-espainiar dualtasun orekatua da nagusi (% 38), zeinari gehitu behar zaion jada ezaguna den euskaltasun joera (% 25), espainolistaren (% 3) oso gainetik dagoena. Bestetik, muturreko espainolismoak oso ehuneko txikia izaten jarraitzen du (% 4), eta beren burua soilik euskalduntzat dutenak laurdena baino zertxobait gehiago dira (% 26, seihilekoan - 4 puntu atzera eginda) (ikus 25. grafikoa).

Euskaldun eta espainiar sentitzen direnen identitateen bateragarritasunari dagokionez, EHBren boto emaileen % 25eko gutxienekoaren eta VOXen boto emaileen % 100aren artean dago, tartean egonik: PNV (% 69), PP (% 72), C's (% 76), EP (% 78), PSE-EE (% 82) eta abstentzionistak (% 70). Dena dela, euskaltasuna argi nabarmentzen da abertzaleen artean eta, neurri txikiagoan, autonomisten artean. Soilik euskaldun sentitzen direnei dagokienez, nagusi izaten jarraitzen dute EHBren boto emaileen artean (% 73), eta ehuneko esanguratsu bat dute PNVn (% 28). Aldiz, espainiar sentimendua nabarmena da sozialisten, C's-ren boto emaileen eta, batez ere, popularren (% 28) artean.

## EUSKAL GIZARTEAK ZATITURIK JARRAITZEN DU AUTONOMISMOAREN, FEDERALISMOAREN ETA INDEPENDENTISMOAREN ARTEAN

Estatuaren lurraldea antolatzeko formari dagokionez, seihileko eta urte arteko egonkortasun handiko testuinguru batean, euskal herritarrek zatiturik jarraitzen dute autonomismoaren, federalismoaren eta independentismoaren artean. Gehien-go handi bat oraingo formula autonomikoaren (% 37) eta balizko estatu federal (% 34) baten artean kokatzen da, bigarrena izanik seihilekoan gehien indartzen dena (+6 puntu). Gaur egungo eredu autonomikoak aukera nagusi izaten jarraitzen du popularren (% 86), abstentzionisten (% 52) eta sozialisten artean (% 51); neurri apalagoan, PNVren boto emaileen artean (% 38) eta, oro har, ez-abertzaleen multzoan (% 45).

Autogobernua bide federaletik garatzeko aukeraren aldekoak dira EPren boto emaileak (% 55), eta, maila apalagoan, PNVren boto emaileak (% 41), sozialistak (% 39), EHB (% 23) eta abstentzionistak (% 23). Aukera horrek antzeko babesa du abertzaleen eta ez-abertzaleen artean (herena, gutxi gorabehera). Nolanahi ere, bi formula integrazionista horien baturak gehiago argia izaten jarraitzen du (% 71), eta lau herritarretatik ia hiru haien aldekoak dira (ikus 26. grafikoa).

Formula deszentralizatzaile eta integrazionista horien aurrean, independentismoak –bide autodeterministaren edo konfederalaren bidez– herritarren laurdenaren (% 22) babesa izaten jarraitzen du, seihilekoan - 3 puntu galdu baditu ere. EHBren boto emaileen multzo handi baten babesa du (% 67), baina abertzaleen taldearen ehuneko garrantzitsu batena ere (% 35), nahiz eta gutxiengoa den PNVren (% 17) eta EPren (% 22) boto emaileen artean. Beste muturrean, herritarren % 4 zentralismoaren aldekoak dira, arbuio adierazpen edo adierazpen testimonial gisa, eta talde horren barnean sartzen da batez ere VOX, C' , PP eta PSE-EEren boto emaileen kopuru txiki bat.

## INDARTU EGITEN DA ESTATUTUAREKIN POZIK DAUDENEN GEHIENGO HANDIA, HANDITU DAITEKEEN AUTOGOBERNU BATEN NAHIA ASETZEN BAITU

Gehiago kualifikatu bat –herritarren lau bosten baino gehiago (% 83)– nahiko pozik dago Estatutuarekin; aldiz, gogobetetzen ez dituenen multzoa % 12koa da. Lehenengoek gora egin dute nabarmen azken seihilekoan (+7 puntu), eta atzerakada korrelatiboa izan dute bigarrenek. Edonola ere, Estatutuak gogobetetzen dituen herritarrek zatiturik jarraitzen dute, zuhurtzia adierazten dutenen (% 36) eta guztiz gogobeterik daudenen (% 47) artean. Bigarrenek aurrera egin dute seihilekoan (+9 puntu), eta atzerakada izan dute lehenengoek (-2 puntu). Jarrera kritikoa nagusi da abertzaleen artean (% 42); aldiz, ez-abertzaleen artean, nagusi dira Estatutuak erabat gogobetetzen dituenak (% 57). Hautesleriei erreparatu gero, jarrera kritikoa nagusi da EPren boto emaileen artean (% 46), eta, neurri apalagoan, EHB (% 44), PSE-EE (% 37), abstentzionisten (% 35) eta PNVren (% 33) boto emaileen artean. Aldiz, Estatutuak gutxien gogobetetzen duen hautesleria EHBrena da (% 37), eta gehien gogobetetze dituenak: PP (% 90), C's (% 75), PSE-EE (% 57), PP (% 65,8), PNV (% 56), VOX (% 50), abstentzionistak (% 50) eta, neurri txikiagoan, EP (% 37) (ikus 27. grafikoa).

Gogobeterik ez daudenen eta arbuioa adierazten dutenen jarrerari ñabardurak egin behar zaizkio berriro, herritarrei egungo autogobernu estatusaren alternatibei buruz galdetzen zaienean. Gutxi gorabehera bostetik batek ez du aldaketarik nahi (% 22), ia halako bik falta diren eskumenak transferitzea nahiko luke (% 35) eta zertxobait gutxiago dira autogobernua erreformatu eta areagotzearen alde daudenak (% 26); aldiz, gutxiengo txiki izaten jarraitzen dute hausturaren eta burujabetza prozesu baten alde argi eta garbi dauden herritarrek (% 11), azken seihilekoan aldaketa handirik izan gabe. Lehenengo bi aukerek adostasun handia lortzen dute eta nagusi dira PP (% 90), C's (% 81), VOX (% 75), PSE-EE (% 71), PNV (% 66) eta abstentzionisten (% 60) artean; neurri txikiagoan, EPren (% 43) boto emaileen artean eta, oro har, ez-abertzaleen (% 65) artean, baina baina abertzaleen multzoan ere (% 50). Bestetik, EHBren boto emaileek zatiturik jarraitzen dute burujabetza aukeraren (% 41) eta

autogobernuan sakontzearen (% 47) artean; bi aukerek abertzaleen ia beste erdia hartzen dute batera (% 47). Bi posizio horien artean, autogobernua zabalduko duen erreformak (% 26aren babes) soilik lortzen ditu babes minoritarioak EP (% 39), EHB (% 33), PSE-EE (% 24) eta PNVren (% 23) hauteslerietan.

## **GERNIKAKO ESTATUTUAREN ALDEKO GEHIENGOAREN BABES ESPLIZITUAK GAINDITU EGITEN DU LEHEN ALDIZ 1979KO ERREFERENDUMEAN LORTUTAKOA**

Ia 40 urte igaro direnean Gernikako Estatuaren onarpena berresteko erreferenduma egin zenetik, gaur erreferenduma berriro egingo balitz, baiezkoak (% 57) gainditu egingo luke lehen aldiz 1979ko erreferendumean lortutako babesaren (% 53), azken bost urteetan +27 puntuko igoera ia etengabea izan ondoren. Aldeko iritzi hori oso antzekoa da abertzaleen (% 59) eta ez-abertzaleen (% 57) artean. Aldiz, ezezko botoak orain dela 30 urtekoa (% 3) baino handiagoa izaten jarraituko luke (% 9, -10 puntuko urte arteko jaitsierarekin), orduko abstentzionismoaren kontura (1979an abstentzioa % 41ekoa izan zen). Pluralismoa hautesleria guztietan badago ere, denetan da garaile BAEZKOA, baita laugarren seihilekoz jarraian EHBren hauteslerian ere (% 35), zatituena eta EZEZKOAREN aldekoena dena (% 24) (ikus 28. grafikoa).

## **INDEPENDENTZIA NAHIAK GUTXIENGO BATEN AUKERA IZATEN JARRAITZEN DU, ZIURGABETASUN ETORKIZUN BATEAN**

Euskal autogobernuaren formula politikotik harago, euskal gizartearen bi herenek (% 67) diote independentzia lortzeko gogo gutxi dutela (% 29) edo batere gogorik ez (% 38), seihilekoan +6 puntuko igoera izan ondoren, eta iritzi hori dute batez ere ez-abertzaleek (% 84) eta alderdi autonomisten boto emaileek (hamarretik bederatzik baino gehiagok), baina baita abertzale gehienek (% 50), PNV (% 70) eta EPren (% 75) boto emaileek eta abstentzionistek (% 70) ere. Gehiengo horren aurrean, euskal herritarren laurdenek baino zertxobait gehiagok (% 27) independentzia lortzeko gogo handia dutela adierazten jarraitzen dute, urtetik urterako egonkortasun handiaz. Horixe dio EHBren boto emaileen gehiengo handi batek (% 76) eta, oro har, abertzaleen ia erdiek (% 47), eta, neurri txikiagoan, PNVren boto emaileek (% 26) (ikus 29. grafikoa).

Euskadi independente baten hipotesian, alde handiak daude bizi baldintzen bilakae-rari buruz euskal gizarteak dituen igurikapenetan: alde batean, hobeto biziko ginatekeela uste dutenak daude (% 23); bestean, kontrakoa pentsatzen dutenak eta okerrera egingo genukeela uste dutenak (% 40). Lehenengoek -2 puntu egin dute atzera azken seihilekoan, eta +7 puntu aurrera bigarrenek. Bi aukera horien artean, hirugarren talde batek uste du gauzak ez liratekeela aldatuko (% 17) edo ez daki zehazki zeren alde egin (% 20). Baikorrenak EHBren boto emaileak dira berriro (% 64), eta, oro har, abertzaleak (% 38). Pesimisten multzoan daude: PP (% 100), VOX (% 100), C's (% 88), PSE-EE (% 69) eta, oro har, ez-abertzaleak (% 57), baina baita abstentzionistak (% 40), PNV (% 37) eta, neurri txikiagoan, EP (% 35) ere.

## BALIZKO ERREFERENDUM BATEAN, EZEZKOA BAIEZKOARI GAILENDUKO LITZAIROKE 17 PUNTUKO ALDEAZ


Era berean, berriro ere galdetu diegu gure elkarrizketatuei zer egingo luketen bihar bertan Euskadiren independentziari buruzko erreferendum bat egingo balitz. Iritzi oso desberdinak bildu ditugu, eta iritzi horien bilakaera nabarmen bat hauteman ere bai. EZEZKOA, duela sei hilabete baino mobilizatuagoa, % 48ra iristen da, sei-hilekoan +9 puntuko igoera esanguratsua izan ondoren. Aldiz, BAIEZKOA, askoz ere lerratuago hasieratik, gizartearen herenaren azpitik mantentzen da (% 31), eta, bezaraz, duela bost urteko berdinketa teknikoa 17 puntuko alde bihurtu da ezezkoaren alde. Gainera, % 11k diote abstenitu egingo liratekeela eta % 10ek gaur gaurkoz ez dutela horri buruzko iritzirik. Abertzaleek eta ez-abertzaleek jarrera argiak dituzte: alde (% 52) eta kontra (% 69), hurrenez hurren. Baita hautesleriek ere: EHBren boto emaileen % 86 eta, neurri apalagoan, EPren % 31 eta PNVren % 29, baiezkoaren alde; eta PNVren % 45aren eta zentro-eskuineko aukeren % 100aren artean, ezezkoaren alde, tartean egonik abstentzionisten % 46, EPren % 48 eta PSE-EEren % 83 (ikus 30. grafikoa).

## EUSKAL GIZARTEAK, ZATITUTA, BERE JARRERA GOGORTU DU TERRORISMO DELITUAK DITUZTEN PRESOEI BARKATZEARI ETA GIZARTERATZEARI DAGOKIENEZ

Azken urtean izan den joera aldaketa esanguratsu baten ondoren, joera hori indartu egin da azken sei-hilekoan, eta txikituz doan gizartearen gutxiengo bat (% 37 eta -9 puntu azken urtean) gizarteratze neurriak eskaintzearen alde dago damua erakutsi eta armak uzteko erabakia adierazten duten terrorista guztiei. Horien aurrean, lautik batek (% 25 eta -7 puntu azken sei-hilekoan) uste du neurri horiek izan behar dutela soil-soilik hilketa deliturik ez dituztenentzat; aldiz, laurdenak baino gehiago (% 28 eta +9 puntuko igoera sei-hilekoan) ez daude prest barkatzeko eta uste dute batzuek nahiz besteek zigorra osorik bete behar dutela (ikus 31. grafikoa).


Abertzaleen artean, behera egin dute baldintzarik gabeko barkamenaren aldekoek (% 48), eta ez-abertzaleek aukera horretan zatituta jarraitzen dute. EHBren boto emaileei (% 67), EP (% 41) eta PNVrenak (% 40) gehitu behar zaizkie baldintzarik gabeko barkamenaren aukeran. Zigorrak osorik betetzearen aldekoak dira: VOX (% 88), PP (% 62) eta, neurri txikiagoan, PSE-EE (% 41) eta abstentzionistak (% 42). Bestetik, soilik C's dago gizarteratze baldintzatuaren alde, odol deliturik ez dituztenentzat. Ikus daitekeenez, gai honek zatiketa sakona eragiten du euskal gizartean eta, bereziki, hautesleria moderatuetan.

## 24. Grafikoa: EUSKALDUNEN SENTIMENDU ABERTZALEA







## 25. Grafikoa: EUSKALDUNEN IDENTITATE NAZIONAL SUBJEKTIBOA




## 26. Grafikoa: ESTATU EREDUARI BURUZKO ALTERNATIBAK



## 27. Grafikoa: AUTONOMIA ESTATUTUAREKIKO GOGOBETETASUNA ETA EGUNGO EGOERA KONPONTZEKO ALTERNATIBAK




28. Grafikoa: AUTONOMIA ESTATUTUARI EMANDAKO BOTOAREN BILAKAERA, 1979 ETA 2019 ARTEAN\*



\* Bilakaera sektorialak oraingo bonadari egiteko erreferentzia aurrekoarekin alderatua (2018ko Urtia)

29: Grafikoa: EUSKALDUNEN INDEPENDENTZIA NAHIAK ETA BIZI ITXAROPENAK INDEPENDENTZIAREN ONDOREN

**INDEPENDENTZI NAHIAK**



EHB= %76 (-9)  
EAJ/PNV= %26 (+6)  
Aber.= %47 (-4)


Podemos= %48 (+12)  
EAJ/PNV= %38 (+5)  
Abst.= %15 (-13)

Aber.= %31 (+5)  
Ez aber.= %27 (+5)

Aber.= %19 (+2)  
Ez aber.= %57 (+4)

PP= %100 (+13)  
PSE-EE= %67 (-1)  
Abst.= %55 (+17)  
EAJ/PNV= %32 (-7)  
Podemos= %27 (-5)

**BIZI ITXAROPENAK**




Aber.= %38 (-6)  
Ez aber.= %9 (-2)

EHB= %64 (-7)  
EAJ/PNV= %21 (+2)

Aber.= %23 (+6)  
Ez aber.= %57 (+12)

PP= %100 (+26)  
PSE-EE= %69 (+9)  
Podemos= %35 (+8)

### 30. Grafikoa: BOTOA, INDEPENDENTZIARI BURUZKO ERREFERENDUM BAT EGINGO BALITZ



PP=%100 (+16)  
 PSE-EE=%83 (+8)  
 Podemos= %48 (+5)  
 Abst.=%46 (+11)  
 PNV=%45 (-3)

Aberl.=%27 (+9)  
 Ez aberl.=%69 (+13)

EHB= %86 (-2)  
 Podemos= %31 (+5)  
 EAJ/PNV= %29 (+8)  
 Abst.=%20 (-4)

Aberl.=%52 (-2)  
 Ez aberl.=%12 (-3)

31. Grafikoa: TERRORISMOKO DELITUAK DITUZTEN PRESOEN GIZARTERATZEARI BURUZKO IRITZIA

